

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala arautzen duen 2007ko martxoaren 27ko 5/2007 Foru Araua

(2007ko apirilaren 20ko GAO)

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

HITZAURREA

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala lurralde mailako zerbitzu publiko bat da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio haren edizioa eta kudeaketa; era berean, Foru Aldundiaren erantzukizuna izango da argitaratzea, legez edo erregelamenduz emandako xedapenen arabera, aldizkarian agertu behar duten herri administrazioen eta Justizia Administrazioaren xedapenak, ebazpenak eta gainerako egintzak eta baita partikularren iragarkiak ere.

Oro har, zerbitzu horren erregimen juridikoa, antolakuntzako eta ekonomikoa 2002ko apirilaren 4ko 5/02 Legeak, Probintziako Aldizkari Ofizialak arautzekoak, erregulatzen du eta, modu berezian, beste hainbat arauak, hala nola: 7/1986 Foru Arauak, ekainaren 16koak, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala arautzekoak; 15/1990 Foru Arauak, abenduaren 20koak, 7/1986 Foru Araua neurri batean aldatzen duenak; 8/1985 Foru Arauak, irailaren 10ekoak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko harpidetza eta iragarkiengatiko eskubideak eta tasak arautzekoak; 4/1999 Foru Arauak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Erregimenari buruzkoak; 79/1991 Foru Dekretuak, azaroaren 19koak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren prezio publikoen ordainarazpena onartzen duenak, eta zerbitzu horri dagozkion tasak arautzeko urtero ematen diren foru dekretuek.

Argitalpenari buruzko araudi guztietan, kontuan hartzen ziren erabilitako bitarteko teknikoak, paperezko argitalpena eta ohiko banaketa modua oinarritzat hartuta. Nolanahi ere, azken urteotako aurrerapen teknologikoak direla-eta gero eta gehiago dira bitarteko informatikoak eta telematikoak, bereziki, internet erabiltzen dituztenak. Hain zuzen ere, internetek egundoko iraultza eragin du argitalpenen edizioan, kontsultan eta publizitatean, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak ezin du eragin horretatik kanpo geratu. Alde horretatik, Foru Aldundiaren egitekoa izango da bere eskumenekoa den aldizkari ofiziala komunikazioaren teknologia berriak, bereziki interneta, erabiliz jartzea gipuzkoar guztien eta hemendik kanpo bizi diren herritar guztien eskura.

Era berean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean xedapenak eta iragarkiak argitaratzeko prozeduran dokumentu elektronikoa igortzea eta sinadura digitala erabiltzea sartu behar dira, paperezko euskarrian eta eskuz sinatutako dokumentuen ordezkotza izan daitezen, Aldizkari Ofizialean zuzen eta fidelki argitaratzea alde batera utzi gabe, haien edukiaren benetakotasuna eta erreserba eta, era berean, sartzeari erabaki duen agintariaren eskumena ere bermatu ondoren.

Tresna horien erabilerak Foru Aldundia eta herritarrak hurbilduko ditu, erakundeek eta partikularrek Aldizkari Ofizialean testuak argitaratzeko egin beharreko tramiteak erraztuko ditu eta, orokorrean, Gipuzkoako Administrazio organoen xedapenak eta erabakiak ezagutzera emango ditu.

Horretarako, foru arau honek esparru juridiko eta antolamenduzko oso bat eskaini nahi dio Gipuzkoako Aldizkari Ofizialari, Gipuzkoako egituretan gertatzen ari den garapen teknologikoaren arabera, Foru Aldundiak bere eskumen alor guztietatik bultzatu eta sustatu ari dena baita.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Kontzeptua eta antolakuntza.

«Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala» Gipuzkoako Lurralde Historikoko aldirik ofiziala da, eta bertan argitaratzen dira foru arau honetako 2.artikuluari aipatzen diren xedapenak eta egintzak, lege antolamenduan hala aurreikusten denean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere antolamendu administratiboaren bitartez zuzenean eskaintzen duen zerbitzu publiko bat da Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, organikoki adskribatutako atalaren edo departamentuaren menpekotza, barne hartzen dituen Aldizkari Ofizialaren kudeaketa, argitalpena eta zabalkundea.

2. artikulua. Edukia eta benetakotasuna.

1. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak argitaratuko ditu herri administrazioen eta Justizia Administrazioaren xedapenak, ordenantzak, jakinarazpenak, ebazpenak, iragarkiak, ediktak, erabakiak eta gainerako egintzak administratiboak, zeinak lege edo erregelamendu xedapenen indarrez bertan argitaratu beharrekoak diren.

Era berean, bertan argitaratuko dira, legediaren arabera edo guztien jakinerako, Aldizkari Ofizialean agertu behar duten partikularren iragarkiak, baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz interes orokorrekoak diren gainerako txosten, agiri eta komunikazioak ere.

2. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako testuak ofizialtzat eta benetakotzat hartzen dira. Aldizkariaren edizio elektronikoaren egiazkotasuna, osotasuna eta aldaezintasuna bermatze aldera, argitalpenak sinadura elektroniko onartua eramango du.¹

3. artikulua. Aldizkakotasuna.

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala astelehenetik ostiralera argitaratuko da, jai egunetan izan ezik. Aldizkakotasun hori Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala zein departamentuk argitaratzen duen, hark alda dezake, egoerak hala eskatzen duenean.

4. artikulua. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaeko hizkuntzak.

1. Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko da, eta bi hizkuntzetako testuak ofizialtzat eta benetakotzat hartuko dira.

2. Euskal Autonomi Erkidegoan egoitza duten Herri Administrazioetako eta Justizia Administrazioko organoek autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan bidali beharko dituzte argitaratu beharreko iragarkiak.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egoitza duten Herri Administrazioetako eta Justizia Administrazioko organoek, nahiz egoitza edo helbidea autonomia erkidego barruan edo handik kanpo duten gainerako pertsona fisika edo juridikoen, lurraldeko bi hizkuntza ofizialeko batean bidali ahal izango dituzte iragarkiak, edo bietan.

Iragarkiak hizkuntza ofizial bakarrean bidali badira, Foru Aldundiak ofizioz itzuliko ditu eta Aldizkari Ofizialean bi hizkuntzetan argitaratuko dira. Itzulpen horrengatik dagokion prezio publikoa ordaindu beharko da, eskatzailea egoitza edo helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan duen pertsona fisiko edo juridikoa bada.²

5. artikulua. Argitalpena, kontsulta eta artxibatzea.³

1. Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala euskarri elektronikoan argitaratuko da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren web orrian kontsultatu ahal izango da. Webgunera Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik sartu ahal izango da. Sarbidea unibertsala eta doakoa izango da.

¹ 2.2. artikulua aldatu du 1/2015 Foru Arauak, martxoaren 6koak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizial arautzen duen 2007ko martxoaren 27ko 5/2007 Foru Araua aldatzekoak (2015eko martxoaren 16ko GAO).

² 4.2. artikulua aldatu du 1/2015 Foru Arauak, martxoaren 6koak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizial arautzen duen 2007ko martxoaren 27ko 5/2007 Foru Araua aldatzekoak (2015eko martxoaren 16ko GAO).

³ 5. artikulua lehen eta bigarren atala aldatu egin ditu, eta hirugarren, laugarren eta bosgarrena gehitu, 1/2015 Foru Arauak, martxoaren 6koak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizial arautzen duen 2007ko martxoaren 27ko 5/2007 Foru Araua aldatzekoak (2015eko martxoaren 16ko GAO).

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren edizio elektronikoa egokituta egongo da aniztasun funtzionala duten pertsonen beharretara, pertsona guztiek kontsulta ahal dezaten aldizkaria.

2. Uneoro eskuragarri egongo da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren webgunean datu base bat, haren bidez bilatu, ikusi eta eskuratu ahal izateko aldizkari ofizialean argitaratzen diren egintza, ebazpen eta xedapenak.

3. Aurreko ataletan jarritakoaren kalterik gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiak izaera pertsonaleko datuetarako sarbidea mugatu ahal izango du, beti ere argitalpenaren eskatzaileak aginduta, argitalpenak bere helburua betetzeko epea igarotzen denean eta mugarik gabeko sarbidea mantentzeko interes publikoko beste arrazoirik ez dagoenean, beti ere Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera.

4. Interesatuak edozein iragarkiren paperezko kopia ofiziala eskuratu ahal izango dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren webgunean iragarkia inprimatuz euren bitartekoen bidez.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren webgunean dagoen “aldizkariaren egiaztapen elektronikoa” formulario bidez eta bertan egiaztapen elektronikorako kodea sartuz (EEK), egiaztatu ahal izango da paperezko formatuan dagoen edozein iragarkiren egiazkotasuna, beti ere sinadura elektronikoa duen jatorrizko agiri elektronikoarekin alderatuz.

5. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako agiriak Foru Administrazioako Artxibo Elektronikoan gordeko dira, hain zuzen ere Foru Administrazioaren eremuan agirian kudeaketaren eta espediente elektronikoaren eredu orokorra arautzen duen 2011ko ekainaren 14ko 17/2011 Foru Dekretuak arautzen duen horretan, agirien osotasuna, egiazkotasuna konfidentziasuna, kalitatea, babesa, sarbidea, eskuragarritasuna eta zaintza bermatzeko.

II. KAPITULUA. EGITURA

6. artikulua. Aurkibidea eta banakako iragarkiak.⁴

1. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren zenbaki bakoitzaren hasiera edukiaren aurkibidea agertuko da, ataletan banatuta, 8. artikulua araberak.

Aurkibidea pdf formatuan argitaratuko da eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren sinadura eramango du bere egiazkotasuna, osotasuna eta aldaezintasuna bermatzeko.

⁴ 6. artikulua aldatu du 1/2015 Foru Arauak, martxoaren 6koak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizial arautzen duen 2007ko martxoaren 27ko 5/2007 Foru Araua aldatzekoak (2015eko martxoaren 16ko GAO).

2. Iragarki bakoitza banaka argitaratuko da eta ez da argitalpen zenbakitu batean txertatuko. Iragarki bakoitzak ere Foru Aldundiaren sinadura elektronikoa eramango du.

3. Gainera, eguneko ale oso bat egingo da, artxibatua izan dadin, eta ale horrek ere Foru Aldundiaren sinadura elektronikoa eramango du, eguneko argitalpen osoaren egiazkotasuna, osotasuna eta aldaezintasuna bermatzeko.

7. artikulua. Iragarkien goiburua eta oina.⁵

1. Iragarki bakoitzaren goiburuan Gipuzkoako armarría agertuko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren identitate ezaugarriei buruzko 1990eko martxoaren 27ko 6/1990 Foru Arauaren 4. artikuluan edo etorkizunean hori arau dezakeen beste xedapenen baten arabera.

Goiburuan “Boletín Oficial de Gipuzkoa – Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala” jarriko du.

2. Iragarkiaren orrialde bakoitzean, argitalpen urtea eta eguna jarriko da, baita aldizkariaren zenbakia ere.

Iragarki bakoitzaren oinean edo alde batean, egiaztapen elektronikorako kodea jarriko da 5. artikulua 4. atalean ezarritako ondorioetarako, agiriaren orrialde zenbakia, legezko gordaluaren zenbakia eta erakundearen atariaren helbide elektronikoa.

8. artikulua. Atal banaketa.⁶

1. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ondorengo atalak bereizten dira:

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak.
2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa.
3. Toki Administrazioa.
4. Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
5. Estatuko Administrazioa.

⁵ 7. artikulua aldatu du 1/2015 Foru Arauak, martxoaren 6koak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizial arautzen duen 2007ko martxoaren 27ko 5/2007 Foru Araua aldatzekoak (2015eko martxoaren 16ko GAO).

⁶ 8. artikulua aldatu du 1/2015 Foru Arauak, martxoaren 6koak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizial arautzen duen 2007ko martxoaren 27ko 5/2007 Foru Araua aldatzekoak (2015eko martxoaren 16ko GAO).

6. Justizia Administrazioa.

7. Beste batzuk.

9. artikulua. Formatua.

1. Testuak bi zutabetan banatuko dira, ezkerrekoan euskarazko testua agertuko da eta eskuinekoan gaztelerazkoa.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakiko du Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren formatua, eta testuak zutabetan edo bereiztutako ediziotan argitaratzea, aldizkarian agertu beharreko xedapen, ebazpen eta iragarkien izaerak eta ezaugarriek eskatzen dutenaren arabera.

III. KAPITULUA: JATORRIZKOAK GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN SARTZEKO PROZEDURA

10. artikulua. Agiriak bidaltzea eta argitaratzeko prozedura hastea.⁷

1. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agiriak argitaratzeko prozedurari hasiera emateko, eskaera bat bidali behar zaio Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren ardura duen departamentuko foru diputatuari, argitaratu nahi den testuarekin batera.

2. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko agiriak euskarri informatikoan bidaliko dira, zerbitzuaren ardura duen departamentuko foru diputatuak foru aginduz ezarritako prozedura, berme eta zehaztapenak betez.

3. Bi agiriak legez edo erregelamendu bidez eskumena duen organo edo agintaritzaren sinadurak baimenduko ditu, eta horrela agirien benetakotasunaren erantzule egingo dira.

4. Era berean, foru agindu bidez onartuko dira argitaratzeko diren testuak bidaltzeko inprimakiak, ereduak eta formatu elektronikoak, beti ere Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko argitalpenaren kudeaketa bateratu eta erraztearren.

5. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko jasotzen diren jatorrizko agiriak ofizialak eta isilpekoak izango dira, eta ezingo da horiek buruzko inolako informaziorik eman bidali dituen organoaren berriazko baimenik izan gabe.

⁷ 10. artikulua aldatu du 1/2015 Foru Arauak, martxoaren 6koak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizial arautzen duen 2007ko martxoaren 27ko 5/2007 Foru Araua aldatzekoak (2015eko martxoaren 16ko GAO).

11. artikulua. Jatorrizkoak argitaratzea.

1. Jatorrizkoak idatzita eta baimenduta dauden bezalaxe argitaratuko dira, eta Aldizkari Ofizialean sarrera ematen zaienetik aurrera ezingo da testurik aldatu, non eta igorleak fede eman ez aldez aldaketa baimentzen ez duen. Ortografia akatsak ofizioz zuzendu ahal izango dira.

2. Argitaratzeko bidaltzen den jatorrizko testuak akats formalak edo teknikoak izanez gero, formatu elektronikoaren kasuan, bidali duen organoari itzuliko zaio beharrezkoak diren aldaketak egin ditzan hamabost laneguneko epean. Bide batez, ohartaraziko zaio horrela egin ezearik ez dela testua argitaratuko eta eskaera, besterik gabe, artxibatu egingo dela.

3. Iragarriak argitaratzean Aldizkari Ofizialak egindako erreproduktzio akatsak zuzentzeko, akatsa duen zatia bakarrik argitaratuko da, hori nahikoa denean, edo iragarria oso-osorik argitaratuko da, egindako akatsak iragarkiaren zentzua aldatzen badu edo zalantza bat sor dezake. Zuzenketaren argitalpenak ez du gastu gehigarriarik sortuko.

12. artikulua. Iragarriak argitaratzeko epea.⁸

1. Oro har, inolako akats formalik gabe argitaratzeko bidaltzen diren agiriak gehienez ere hamar lan eguneko epearen barruan argitaratuko dira, erregistroan sarrera eman eta hurrengo egunetik aurrera, baldin eta doako agiria bada. Akats formalak egonez gero, epea akatsak zuzentzen diren egunaren biharamunetik aurrera kontatuko da.

Ordaindu beharreko iragarkien kasuan eta iragarria itzuli beharra dagoenean, igortzaileak ez balu dagokion ordainketa helbideratua, epea ordainketa egiaztapen den egunaren biharamunetik zenbatuko da.

2. Halaber, testuaren igorleak eska dezake presazkotzat jotzea haren argitalpena; horrelakoetan, argitalpena hiru lan eguneko epean egingo da, dagokion tasaren ordainketa egiaztatu ondorengo lehen egun baliogunetik aurrera, eta beti ere iragarria ele bieran bidali bada.

Edonola ere, aldizkari ofizialak iragarki bat presaz argitaratzea ezinezkoa dela adierazi ahal izango du, iragarkiaren konplexutasunak epe hori betetzea ezinezkoa egiten badu edo presazko iragarkien kopuruak zerbitzuak duen ahalmena gainditzen badu.

⁸ 12. artikulua aldatu du 1/2015 Foru Arauak, martxoaren 6koak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizial arautzen duen 2007ko martxoaren 27ko 5/2007 Foru Araua aldatzekoak (2015eko martxoaren 16ko GAO).

3. Gainera, Aldizkari ofizialaren ardura duen departamentuko foru diputatuaren foru aginduaren bidez, gutxieneko epea ezarri ahal izango da, aurreko ataletan aipatu epeetatik aparte, toki entitateek dagokion araudiaren arabera argitalpen epe jakin eta zehaztu bat duten xedapen eta ebazpenen testuak bidal ditzaten. Epe hori zehazteko kontuan hartuko da argitaratu beharreko testuaren luzera eta testu hori zenbat toki entitateei doakien.

Aurretik bidaltzeko epe hori betez gero, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak nahitatez argiratu behar du bidalitako testua.

4. Artikulu honetan ezarritako epeak zenbateko, larunbatak ez dira lan eguntzat joko.

13. artikulua. *Iragarkiak argitaratzeko hurrenkera.*

1. Oro har, jatorrizko testuak erregistroko sarrera kronologikoko hurrenkerari jarraituz argitaratuko dira, eta ez da lehentasunik ezarriko administrazioko organo igorlea edozein dela ere.

2. Ez dute sarrerako irizpide orokor hori beteko, argitaratu beharreko testu bolumena edo bestelako ezaugarri bereziak direla eta, aurreikusi gabeko lanak egitea eskatzen duten eskaerek eta 12.artikuluari aipatutako argitalpen epea ezarria dutenek, ez eta premiazkotzat onartzen eta jotzen diren eskaerek ere.

Era berean, ez da hurrenkera kronologikoa jarraituko luza ezineko epea duten iragarkien kasuan, haien prozesuaren eraginkortasuna eta bideragarritasuna ziurtatzeko.

14. artikulua. *Baimenduen eta sinadura elektronikoen erregistroa.*

1. Agirien benetakotasuna egiaztatzearen, Gipuzkoako Foru Aldundiak eguneratuta izango du Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu nahi diren jatorrizkoak aldizkarian sartzeko eskumena duten agintari eta funtzionarioen erregistroa.

Foru arau honen 2.artikuluko 1.zenbakian aipatzen diren administrazioek, bakoitzak bere araudiari jarraituz, egoki iruditzen zaizkien pertsonak izendatuko dituzte erregistro horretan, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea baimentzeko eskumena emango diete. Erregistro horretan izenik ez badago, xedapena edo iragarkia bidaltzen duen organoaren, herri entitatearen edo erakundearen legezko ordezkari duena izango da horretarako izendatua.

2. Foru Aldundiko departamentuen kasuan, Aldizkari Ofizialean jatorrizkoak argitaratzeko eskaeraren sinadura doakion Idazkaritza Teknikoari eta Araubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusiar dagokie.

3. Argitaratzeko bidaliko diren dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko, Foru Aldundiak aldizkarian argitaratu nahi diren jatorrizkoen sarrera sinatzeko ahalmena duten agintari eta funtzionarioen sinadura elektrikoaren erregistroa eramango du.

Erregistro horren eta sinadura elektrikoaren benetakotasuna eta osotasuna bermatzeko ziurtapenen eta bitartekoaren ezaugarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala zein departamenturi atxikita dagoen, hango foru diputatuak ezarriko ditu.

IV. KAPITULUA. GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA

15. artikulua. Zerga gaia.

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala interneten bidez edo beste bitarteko telematikoren baten bidez kontsultatzen denean izan ezik, hori publikoa eta doakoa baita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak eskainiko dituen zerbitzuek eskubide ekonomikoak sortuko dituzte. Berezi, ondoko hauek izango dira tasaren zerga gai:

1. Bitarteko elektronikoak edo baimendutako beste edozein bitarteko erabiliz bidalitako testu mota oro Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

2. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren orri inprimatuak egiaztatzea.

16. artikulua. Salbuespenak.⁹

1. Iragarkiak aldizkarian sartzeko tasa ordaintzetik salbuetsita daude:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren xedapen, ebazpen eta iragarkiak, baldin eta horien kostua hirugarrenek ez badute hartu behar bere gain, aplikagarri diren xedapenen arabera.

b) Nahitaez sartu beharrekoak diren xedapen eta ebazpenak.

c) Epaitegi eta auzitegien ediktu eta iragarkiak, haien argitalpena ofizioz agintzen denean.

d) Toki Administrazioako entitateen eta horiei loturik edo horien mende dauden zuzenbide publikoko erakundearen zerga eta ordainarazpen parafiskalak biltzeko prozeduretan agerraldi bidez jakinarazteko zitazioak, zergak biltzea dagokion administrazioak interesdunari edo haren ordezkariari jakinarazten saiatu eta ez badu lortu.

⁹ 16. artikulua aldatu du 1/2015 Foru Arauak, martxoaren 6koak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizial arautzen duen 2007ko martxoaren 27ko 5/2007 Foru Araua aldatzekoak (2015eko martxoaren 16ko GAO).

e) Toki Administrazioako entitateak edo horiei loturik edo horien mende dauden zuzenbide publikoko erakundeek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ediktuen bidez egindako jakinarazpen administratiboak, beti ere administrazio prozedurari buruz indarrean dagoen arautegiari jarraituz egindakoak.

f) Lege edo arautegi baten arabera nahitaez argitaratu beharreko iragarki ofizialak.

2. Salbuespen hori ez zaie inoiz ezarriko honako iragarki hauei:

a) Partikularrek eskatuta argitaratutako iragarkiei.

b) Edonolako kontratu moten lizitazio iragarkiei, horri buruzko legeriak ezarritakoaren arabera.

c) Justizia Administrazioako iragarki ofizialei, partikularrek eskatuta argitaratzen badira.

d) Aplikatu daitezkeen xedapenen arabera iragarkien kostua interesatuei jasanarazi ahal zaienean.

e) Tasa, prezio publiko edo bestelako eskubide ekonomikoak ordaintzeari lotuta dauden prozeduretatik datozen iragarkiei.

f) Bidaltzaileari edo eskatzaileari, zuzenean edo zeharka, onura ekonomikoren bat ekarri ahal dioten iragarkiei, edo eduki ekonomikoa dutenei.

Ondorio hauetarako ulertuko da ez dutela onura ekonomikorik ez eduki ekonomikorik zerga eta ordainarazpen parafiskalen prozeduretan agerraldi bidez jakinarazteko zitazioek, horien bilketa dagokien Toki Administrazioako entitateek edo horiek loturik edo horien mende dauden zuzenbide publikoko erakundeek egin badute jakinarazpen horiek interesdunari edo bere ordezkariari egiteko saiakera eta ez badute lortu.

g) Legezko edo arauzko xedapenen baten arabera, egunkari idatzi batean ere argitaratu ahal edo behar diren iragarkiei. Salbuetsi egiten dira aurreko ataleko d) eta e) letretan aipatu iragarkiak.

3. Iragarki bat presaz argitaratzea eskatzen bada, ohiko zerbitzua nahikotzat jotzen ez delako, tasa ordaindu egin beharko da. Ohiko zerbitzuagatik tasa ordaindu behar duten iragarkien kasuan bi zenbatekoak batuko dira.

4. Doan argitaratu behar diren eskaerek iragarkiaren argitalpena tasa ordaintzetik salbuetsizat jotzeko arauaren erreferentzia jaso beharko dute.

17. artikulua. Subjektu pasiboak.

1. Tasaren subjektu pasiboak, zergadun gisa, zerga ordainketa daramaten zerbitzuak zuzenean nahiz ordezkari baten bidez eskatzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak dira, eta baita 2005eko martxoaren 8ko Zergen 2/2005 Foru Arau Orokorreko 35.3 artikulua aipatzen dituen erakundeak ere.

2. Ondorio horietarako, lurralde espainiarrean bizi ez diren subjektu pasiboek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialarekin harremanetan jarri nahi izanez gero, Gipuzkoako Lurralde Historikoan helbidea duen ordezkari baten bidez egin behar dute eta behar den eran jakinarazi behar zaio foru diputatuari ordezkari horren izendapena.

18. artikulua. Zerga erantzuleak.

Zergaren erantzuleak dira 2005eko martxoaren 8ko Gipuzkoako Zergen 2/2005 Foru Arau Orokorrean halakotzat erregulatuta dauden pertsona fisikoak edo juridikoak.

Erantzukizun hori deribatzeko, pertsona interesatua aurrez entzun eta egintza administratiboa eman behar da, eta aipatu foru aginduan zehazten den prozedurari jarraitu behar zaio erantzukizun hori eskatzeko.

19. artikulua. Tasa sortzapena.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testuak argitaratzen diren kasuan, dagokion tasa argitaratzeko eskaera aurkeztearekin batera sortuko da. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren orri inprimatuak egiaztatzeke kasuetan, tasa ere zerbitzua eskatzearekin batera sortuko da.

20. artikulua. Zerga oinarria.¹⁰

Tasaren zerga oinarria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak emandako zerbitzuek osatzen dute, eta zehazteko ondoko irizpideak hartuko dira kontuan:

- a) Argitaratu beharreko testuaren karaktere kopurua.
- b) Argitaratu beharreko irudien tamaina
- c) Presaz argitaratutako iragarkiak
- d) Egiaztatu beharreko orri kopurua

¹⁰ 20. artikulua aldatu du 1/2015 Foru Arauak, martxoaren 6koak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizial arautzen duen 2007ko martxoaren 27ko 5/2007 Foru Araua aldatzekoak (2015eko martxoaren 16ko GAO).

21. artikulua. Tasaren kuota.

Zerga oinarriaren arabera zehaztuko da kuota, Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero finkatuko dituen tarifak ezarriz kuota horri.

22. artikulua. Tasaren likidazioa eta ordainketa.

1. Dagokion tarifa ezartzetik ateratako tasaren zenbatekoa tasa hori sortzen denetik eska daiteke. Horretarako, ordainketak helbideratuta daudela egiaztatu behar da zerbitzuak eman aurretik; bestela, dagokion zenbatekoa ordaindu behar da.

Horiek horrela, ordainpeko iragarkiak sartzeko, zergapekoak iragarkiari dagokion zenbatekoa likidatu behar du, eta iragarkia sartzeko eskaerarekin batera ordainagiria aurkeztu behar du, banku edo aurrezki kutxaren bateko kontu korronteren batean ordainketa helbideratua duenean izan ezik.

2. Ordainagiririk eransten ez duten edota, bestela, helbideratze datuak adierazten ez dituzten eskaeren kasuan, akats hori zuzendu egin behar da. Horrela egin ezean, ez da iragarikirik argitaratuko eta eskaera artxibatatu egingo da, besterik gabe, bidalketa egunetik hamabost egun baliodun igaro ondoren.

3. Zerga gaia osatzen duten gainerako zerbitzuen likidazioa eta ordainketa ere zerbitzua eman aurretik egin behar da, eta behar bezala egiaztatu, aurreko puntuan adierazi bezala eskaeratzailleak ordainketa helbideratua duenean izan ezik.

23. artikulua. Ordaintzeko era.

1. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak eskaintzen dituen zerbitzu guztien tasak banku edo aurrezki kutxako kontu korrontean helbideratuta ordain daitezke. Testuak argitaratzeko zerbitzuaren kasuan, Aldizkari Ofizialeko administrazioak hilabete bakoitzeko lehenengo astean pasako du helbideratutako ordainketen kargua, aurreko hilabetean egin diren argitaratze eskaerei dagokiena.

2. Helbideratu gabeko zerbitzuak ordaintzeko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak zehaztuko duen kontu korrontean sartu behar da dagokion tasa, edo internet bidez egin ahal izango da, Foru Aldundiak zehaztuko dituen datuak emanez.

Horiez gain, Foru Aldundiak beste ordainketa era batzuk ere erabaki ditzake.

24. artikulua. Tasaren kudeaketa.¹¹

1. Tasen kudeaketa eta bilketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren ardura duen Departamentuak egingo du.

Xedapen gehigarriak.

Lehenengoa: 1992ko azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak 45.artikuluaren eta Probintzietako Aldizkari Ofizialak arautzen dituen 2002ko apirilaren 4ko 5/2002 Legeak 9.artikuluaren xedatutakoaren arabera, Diputatuen Kontseiluak beharrezkoak diren xedapenak emango ditu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren zerbitzua eskaintzean teknika eta bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabili ahal izateko.

Bigarrena: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala atxikita dagoen departamentuko diputatuaren foru aginduaren bidez onartuko dira: prozedura eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar diren xedapen, egintza administratibo eta gainerako iragarkiak bide elektronikoa eta informatikoa bidaltzeko erabili behar diren programa eta aplikazio elektronikoa, informatikoa eta telematikoa; sinadura elektronikoen erregistroa sortu eta abian jartzeko beharrezkoak diren bitarteko tekniko eta informatikoa; edizio elektronikoa alderdi teknikoak, maketazioa eta dagokien tasen likidazioa eta kobrantza; eta gainera, aldizkariaren atal bakoitzeko azpiatalak zehaztea argitaratu beharreko iragarkiak hobe antolatzeko.

Xedapen indargabetzailea.

Berariaz indargabetuta geratzen dira foru arau honen aurka doazen maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak eta, batez ere, ondoko hauek:

1. 1986ko ekainaren 16ko 7/1986 Foru Araua, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala arautzen duena.

2. 1990eko abenduaren 20ko 15/1990 Foru Araua, 7/1986 Foru Araua zati batean aldatzen duena.

3. 1985eko irailaren 10eko 8/1985 Foru Araua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko harpidetza eta iragarkiengatik eskubideak eta tasak kobratzea arautzen duena.

4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga neurriei buruzko 1999ko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 14. eta 15.artikuluak.

¹¹ 24. artikulua aldatu du 1/2015 Foru Arauak, martxoaren 6koak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizial arautzen duen 2007ko martxoaren 27ko 5/2007 Foru Araua aldatzekoak (2015eko martxoaren 16ko GAO).

5. 1991ko azaroaren 19ko 79/1991 Foru Dekretua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren prezio publikoen ordainarazpena onartzen duena.

Bukaerako xedapenak

Lehenengoa: Baimena ematen zaio Diputatuen Kontseiluari foru arau hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.

Bigarrena: Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean, 10.1 artikulua izan ezik, izan ere, argitaratu beharreko testua euskarri informatiko eta elektronikoan bidaltzeari dagokionez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta sei hilabeteko epean sartuko baita indarrean, edo, hori lehenago gertatzen bada, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren zerbitzuaren ematean teknika eta bitarteko elektroniko informatiko eta telematikoak erabiltzea baimentzen duten xedapenak indarrean sartzen diren egunean.¹²

¹² Lehen xedapen gehigarria aldatu egin du 1/2015 Foru Arauak, martxoaren 6koak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizial arautzen duen 2007ko martxoaren 27ko 5/2007 Foru Araua aldatzekoak (2015eko martxoaren 16ko GAO).